

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Balorezko proposamenean adierazi dugun bezala, gure proiektua altzari batzuk egitea da, eta horretarako, eta hala ingurumenari ahalik eta min gutxiago egite aldera, birziklatutako materiala erabili beharko dugu. Gaur egungo egoera ikusita, gure produktua erosiko duten pertsonak, espazioa aprobataxatu nahi duten pertsonak bezala irudikatzen ditugu; hala nola, hotelak, etxe txikiak dutenak...

Pertsona hauek gure produktua erosiko duten pertsonak kontzientzia ekologiko handia duten pertsonak izango dira. Hau da, pertsonak ingurumen-problemei buruz kezka biltzen dituzten pertsonak. Horrez gain, zorionez, gero eta pertsona gehiagok adierazten dute ingurumena zaintzeko interesa dutela eta ingurumenarekin lotutako arazoei buruzko informazioa jasotzen dutela. Beraz, kontzientzia ekologikoa duten pertsonak beraien bizimodu eta jarduerak aldatzeko prest dauden pertsonak izango lirateke, mundu hobea baten bila daudenak.

Hala eta guztiz ere, hasieran esan bezala, gure erosle guztiak ez dira kontzientzia ekologikoa duten pertsonak bakarrik izango. Pentsatzen dugu gure proiektuko erosleak etxeko espazio guztiak aprobataxatu nahi dituztenak eta abar ere izango direla.

Zergatik uste pertsona hauek gure produktua erosiko dutela? Erraza da. Espainian geroz eta garestiago dago etxe handi baten kostua, izan ere, askotan etxebizitzak nahiko txikiak izaten dira eta oso zaila da behar adina altzariak sartzeko. Gainera, etxe horiek, askotan ez daramate altzaririk eta, beraz, diru kantitate potolo horri, beste diru kantitate handi bat gehitu behar zaio. Adibidez, "Idealista" izeneko web orriak adierazten duen bezala, 100 metro karratuko etxe bat duen pertsonak, 20.000 euro gastatu beharko lituzke altzari guztiak erosteko.

Horrez gain, hotelen kasuan, askotan gelak oso txikiak izan ohi dira, beraz, ondo datorkie espazioa aprobatazeko altzariak jartzea; hala nola, mahai bihurtzen diren estanteriak, aulki bihurtzen diren mahaiak...

Arazo horri aurre egiteko eta gure produktuak erabilera anitza duen horretan, etxe berri bat erosi duten pertsonak geroz eta diru gutxiago erabili beharko lukete beraien etxeak altzariz osatzeko. Ez hori bakarrik, erabilera anitza duten horretan, geroz eta espazio handiagoa izango dute nahi duten beste dekorazioak burutzeko, hala, etxea geroz eta erabilgarritasun handiagoa izateko, geroz eta espazio txikienean.

Horrez gain, guk gure produktuak diseinatzeko aukera dugunez, gure erosleei ere aukera eman nahi diegu beraiek nahi duten dekorazioa burutzeko, eta hala, beraiek nahi duten etxe perfektua izateko aukera izango lukete..

Laburbilduz, gure produktua erosiko duten pertsonen tasa handiena, etxean altzarientzako espazio gutxi duen pertsonak eta hotelak izango dira. Hauek gure produktuak erosiz, geroz eta erabilera handiagoa emateko etxeari, geroz eta espazio txikienean eta beraiek nahi duten dekorazioa erabiliz.